



PRENTSARAKO OHARRA

18/11/06

Bizkaiko Foru Aldundiak 2017an aurreikusitakoa baino 166 milioi euro gehiago batzea aurreikusten dau

Joan dan urriaren 11n egin zan bileraren ostean, Herri-Dirubideen Euskal Kontsejuak (HDEK-CVFP) aurreikusi dauenez, Bizkaiko Foru Ogasunak tributu kontzertauengaitik izango dauen diru-bilketea, 2017ko urrian aurreikusitakoa baino 166 milioi gehiagokoa izango da. Guztira, Bizkaiko Foru Ogasunak 2017an baino 91 milioi euro gehiago batzea aurreikusten dau, kupoaren kitapenaren ganeko akordioa kanpo itzita.

Hori izan da Unai Rementeria Ahalduen Nagusiak gaur goizean egin dan saioan Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordearen aurrera eroan dauen gaietako bat.

EAE osoan, 2018rako tributu kontzertauengaitik aurreikusten dan diru-bilketea 14.706,5 milioi eurokoa da. Oraingo honetan be, kupoaren ganeko akordioak kontuan izan barik, benetako hazkundera %6,6koa izango da.

2019. urteari begira, HDEK-CVFPk, “euskal ekonomiaren hazkundera kontuan izanda”, hiru Foru Aldundiek, tributu kontzertauengaitik, 15.265,4 milioi euro batzea aurreikusten dau, hau da, 2018rako aurreikusitako itxierako diru-bilketea baino %3,8 gehiago.

Rementeriak gogoratuazo dauenez, bilera horretan hiru Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari 2019an egingo deusiezan ekarpenak be onetsi ziran. Kopuru hori 10.155 milioi eurokoa izango da. %50,41a –2018an baino %0,04 gehiago– Bizkaiko Ogasunak jarriko dau.

Bilera horretan, 2019rako Doikuntzako Funtz Orokorren behin behineko zenbatekoa be zehaztu zan, eta 114,3 milioi eurotan itzi zan; kontzeptu horren finantzaketaren %70,04 Eusko Jaurlaritzaren esku dago, eta Foru Aldundiek generako %29,96a ordaindu beharko dabe. Bizkaiari jagokonez, %15,10 jarri beharko dau.

Horrez gain, bilera haretan, euskal administrazioek 2019an be Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Funtsera 20 milioi euro bideratzea adostu eben. Eusko Jaurlaritzak 14 milioi jarriko ditu, eta generako 6 milioiak Foru Aldundiek. Bizkaiko Lurraldeak 10.082.000 euro jasoko ditu. Horreetatik, erdia Udalek kudeatuko dabe, eta beste erdia Aldundiak berak.

Beste alde batetik, Ahalduen Nagusiak, urriaren 17an egin zan Finantzen Bizkaiko Lurralde Kontsejuaren bileratik sortutako akordio batzuk zehaztu ditu. Ekitaldi honetarako itxierarako aurreikuspena 850,92 milioi eurokoa da, hau da, aurrekontuetan aurreikusitakoa baino 31 milioi euro gehiago.

2019rako, aurreikuspena 869,1 milioi eurokoa da (2018ko aurrekontukoa baino %6,1 gehiago). Horri esker, udalek 50 milioi gehiago eukiko ditue.

Oposizinoko taldeek euren txandea baliu dabe koefiziente horizontalen edo Erakunde arteko Funttsaren ganean Ahaldun Nagusiak emon dauen azalpenean sortu diran zalantza batzuk argitzea eskatzeko.

Juan Otermin batzordekide sozialistaren eretxiz, “gure Lurraldeak eta Euskadik bizi daben egonkortasun politikoa positiboa ari da izaten, ekonomiarako eta gizarte arloko egonkortasunerako”.

Modu berean, Jon Atutxa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak, udalen finantzaketaren igoerea jarri dau balioan: “Horrek esan gura dau Udalkutxa gehiengo historikora helduko dala, 757 euro persona bakoitzeko, hain zuzen be”.

LOIOLAKO SAN INAZIOREN KANONIZAZINOAREN LAUGARREN MENDEURRENA

Saioa bukatzeko, Talde Mistoak aurkeztutako Arauz besteko proposamen bat eztabaidatu da. Bertan, Arturo Aldecoa bozeroaleak, “2022an Loiolako San Inazioaren kanonizazinoaren laugarren mendurrenaren inguruan jarduerak antolatzen dituen erakundeei bere laguntzea eskaintzea” eskatzen eutsan Foru Aldundiari, “gure lurraldeagaz daukan loturea dala eta, Bizkaiko zaindaria dalako eta bere lanak eta irakaskuntzak azkenengo gizaldietan euki daben garrantzia dala eta”.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak kontra agertu dira, eta baita Podemos eta EH Bildu taldeak be, eta, hori dala eta, ekimenak ez dau aurrera egin. Talde Popularra abstenidu egin da. Ezezko eretxiak ikusita, Aldecoak “aukera horri pasetan ez izteko” eskatu dau, bere eretxiz “gertakari garrantzitsua” dalako.

NOTA DE PRENSA

06/11/18

La Hacienda Foral vizcaína prevé recaudar este año 166 millones de euros más que lo previsto en 2017

Tras la reunión celebrada el pasado 11 de octubre, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas (CVFP) ha previsto que en 2018 la recaudación por tributos concertados de la Hacienda Foral vizcaína se incremente en 166 millones de euros más, en comparación con lo previsto en octubre de 2017. En total, la Hacienda Foral de Bizkaia prevé recaudar 91 millones de euros más que en 2017; este dato se eleva a 394,5 millones de euros si no se tienen en cuenta el acuerdo de liquidación del cupo.

Ésta ha sido una de las cuestiones que el Diputado General, Unai Rementeria, ha trasladado a la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales en una sesión celebrada esta mañana.

En el conjunto de la CAV, la previsión de cierre de la recaudación por tributos concertados para 2018 asciende a 14.706,5 millones de euros. Nuevamente, excluidos los acuerdos del cupo, el crecimiento real asciende a un 6,6%.

De cara al 2019 la CVFP, “a la vista del crecimiento de la propia economía vasca”, ha previsto que las tres Diputaciones Forales recaudarán por tributos concertados 15.265,4 millones de euros, lo que supone un incremento del 3,8% respecto a la recaudación de cierre prevista para 2018.

Según ha recordado Rementeria, en la reunión se aprobaron también las aportaciones que las tres diputaciones realizarán al Gobierno vasco para el ejercicio 2019, que serán de 10.155 millones de euros. Un 50,41% - un 0,04% más que en 2018- lo aportará la Hacienda vizcaína.

Durante la reunión también se determinó el importe provisional del Fondo General de Ajuste para el año 2019, el cual asciende a 114,3 millones de euros; la financiación corresponde al Gobierno Vasco en un 70,04% y las Diputaciones Forales en un 29,96%. Bizkaia concretamente aporta un 15,10%.

Asimismo, en aquella sesión las administraciones vascas acordaron volver a dotar al Fondo Interinstitucional de Servicios Sociales en 2019, con 20 millones de euros. El Gobierno Vasco aportará 14 y las Diputaciones Forales los 6 restantes. El territorio vizcaíno recibirá 10.082.000 euros. De ellos, la mitad será gestionada por los ayuntamientos y la otra mitad por la propia Diputación.

Por otra parte, el Diputado General ha detallado algunas de los acuerdos que surgieron en la reunión del Consejo Territorial de Finanzas de Bizkaia, que tuvo lugar el 17 de octubre. La previsión de cierre del presente ejercicio asciende a 850,92 millones de euros, es decir, 31 millones de euros más que los contemplados en los presupuestos.

Para 2019, la previsión es de 869,1 millones de euros (un 6,1% más que la del presupuesto del 2018). Esto permitirá a los ayuntamientos disponer de 50 millones extra.

Los grupos de la oposición han aprovechado su turno de intervención para solventar algunas de las dudas surgidas durante la exposición del Diputado General en torno a los coeficientes horizontales o al Fondo Interinstitucional.

Para el apoderado socialista Juan Otermin “la estabilidad política que se vive en nuestro Territorio y en el País Vasco está siendo positiva, tanto para el quehacer económico como para la estabilidad social”.

En la misma línea, el portavoz del grupo Nacionalistas Vascos, Jon Atutxa, ha puesto en valor el aumento de financiación municipal: “Esto significa que va a poner al Udalkutxa per cápita en un máximo histórico de 757 euros por persona”.

CUARTO CENTENARIO DE LA CANONIZACIÓN DE IGNACIO DE LOYOLA

La sesión ha finalizado con el debate y posterior rechazo de una proposición no de norma presentada por el Grupo Mixto. En ella, su portavoz Arturo Aldecoa instaba a la Diputación Foral a “ofrecer su participación a las entidades que organicen actividades en torno al cuarto centenario de la canonización de Ignacio de Loyola, en 2022, dado su nexos con nuestro territorio, su carácter de patrón de Bizkaia y la importancia de su obra y enseñanzas en los últimos siglos”.

La negativa de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, además de la de los grupos Podemos y EH Bildu, ha sido suficiente para propiciar que la iniciativa decayera. El Grupo Popular, por su parte, ha optado por la abstención. Ante esta negativa, Aldecoa ha solicitado que “no dejen pasar esto”, al considerarlo “un evento de relevancia”.